

## **MARKINA-XEMEIN / Maria Moliner saria lortu du aurten ere herri bibliotekak**

**Irakurzaletasuna bultzatzearen jaso duen laugarren Maria Moliner Saria da aurten irabazi duena.**

Eider Mugartegi

Herri bibliotekak Maria Moliner Saria lortu du laugarren urtez. Espainiako Kultura Ministeritzak antolatzen duen lehiaketa 50.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerriei zuzenduta dago, eta irakurzaletasuna bultzatzen duten proiektu eta ekimen hoberenak saritzen ditu.

Irakurketa bultzatzeko egin den Maria Moliner IX. kanpainak hiru atal izan ditu aurten: irakurketa bultzatzeko proiektu onenarena, bibliotekako behar hoberenarena eta gizarteratzeko proiektu hoberenarena. Markina-Xemeingo Herri Biblioteka lehenengora aurkeztu da, eta saria lortu du.

Hiru atalak kontuan hartuta, guztira, aurten, 557 proiektu aurkeztu dira lehiaketara, eta 350 irabazle aukeratu dituzte. Bizkaian, bederatzi udalerrri izango dira saria jasoko dutenak, tartean, Markina-Xemeingo Herri Biblioteka; Gipuzkoan, lau; Araban, hiru; eta Nafarroan, bi. Sarituek 200 liburuz osatutako sorta jasoko dute.

### **Ekimenak**

Irakurketa bultzatzeko asmoz, hainbat ekimen antolatzen ditu urtero herri bibliotekak. Beste batzuen artean, aurten, hainbat ipuin kontalari eta idazle ekarri ditu ume zein nagusientzat, eta liburuaz berba egin eta iritziak trukatzeko batzen den Irakurleen Txokoa ere martxan dauka. Horretaz gainera, beste hainbat ekimenetan ere parte hartu du. Liburuaren Egunari lotuta, Irakurri, gozatu eta oparitu egitasmoan parte hartu du liburuak erosteko deskontuak emanez, eta Galtzagorri Elkarteak antolatutako irakurketa tailerrak ere prestatu ditu.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak antolatutako Liburutegiak Topaleku proiektuagaz ere bat egin du kultur arteko integrazioa sustatzeko asmoz.

Herriko taldeekin ere batu da herri biblioteka elkarlanean ekimenak prestatzeko. Arte Eskolagaz batera, Haur Liburuaren Egunean, Andersen Urretxindorra liburua egin dute, Uhagon Kultur Elkarteagaz, Euskara Zerbitzuagaz eta Arte Eskolagaz Berba Idatziak ekimena antolatu dute eta Peru Abarka Narrazio Laburren Lehiaketako bultzatzaile ere bada, Euskara Zerbitzuagaz batera.

### **Laugarrena**

Proiektu horiek guztiak bultzatzearen jaso du saria herri bibliotekak. Aurtengoa laugarrena da: 2.000. urtean jaso zuen lehenengoa, eta 2.006an eta 2.007an bigarrena eta hirugarrena.